



Gaizka Lasa
Diario Vasco



EDITORIALA

Garai bateko eta gaurko ontzien jomuga gizartea bezelaxe goitik behera aldatu da. Lehen beharraren usaina zuen kresalak gaur ohorea irudikatzen du. Olatuen arteko jardunak sari bezela uzten zuen ogiaren lekuan gaur koroa baliatsua dugu. Urritasuna zen babesle orduan, aurrezki kutxa orain. Ogi-bide arrunta goi mailako kirol bilakatu zaigu.

Arrantzaleek utzitako ondarea ordea ez da alperrik galdu. Astebukaeraro entzun dezakegu arraun kuadrila batek ur azpian sortzen duen burrunba. Traineru batek ur gainean oreka mantentzen eskeintzen duen magia ikuskizunarekin gozaten dugu. Eta guztiaren oinarri kopetetatik isurtzen den izerdia da oraindik ere, helburuak helburu, garaia garai. Esfortzuaz eta apaltasunez josita dago ikurriña bakoitza garai batean arrain bakoitza sakrifizioa eta adoreaekin sukaldatzen zen bezelaxe.

Batzuen lana, arraunlariena, besteen opari da gaur ere. Gosea kentzen jarraitzen duena, garaian garaiko goseak baitaude, jakina. Sabelak betetzen zituen arraunak lehen, orain aldiz barruan daramagun harra asetzen du. Deskribatzeko zaila. Kutsakorra, hori bai. Eta kolore desberdinetakoa.

Opari hori gainera gaur inoiz baino txukunago apainduta eta bilgari erakargarri batekin eskeintzen zaigu. Talde onenek kalitatea bermatzen duen elkarte bat sortu eta honek lehiaketa ikusgarria antolatzen du. Osagai guztiak uztartzen dituen. Lehen aipatutako oinarrien xar-mari modernitatea gehitzen diona. Teknologia dakarren zehaztasuna, komunikabideen oihartzuna, jai giroa sortzen duen eszenatokia... Garagardoa eta atuna ez aipatzeagatik. Zorionekoak garela, alegia. On egin.

Siguiendo la tradición en elaboración de la sidra natural durante distintas generaciones e aquí la sidra Bereziartua para degustarlo y disfrutarlo con la ACT.

Elaborado en nuestras instalaciones de Astigarraga, en la cuna de la sidra.

Hainbat belaunalditako tradizioarekin jarraituz hona hemen Bereziartua sagardo naturala, ACT rekin batera dastatzeko eta gozatzeko.

Astigarragan kokaturiko instalakuntzetan egina, sagardoaren bihotzean.



BEREZIARTUA





- * **Opentrad** es un sistema de traducción automática. Una solución eficaz, rápida y de calidad para personas, empresas e instituciones que deben manejar situaciones de multilingüismo.
- * **Opentrad** itzulpen automatikoko sistema bat da. Soluzio eraginkorra, azkarra eta kalitatezkoa egoera eleanitzak kudeatu behar dituzten pertsona, enpresa eta erakundeentzako.
- * **Opentrad** é un sistema de traducción automática. Unha solución eficaz, rápida e de calidade para persoas, empresas e institucións que deben manexar situacións de multilingüismo.

info@opentrad.com

www.opentrad.com

NAVEGA
en un mar de lenguas

NABIGATU
Hizkuntzen itsasoan

NAVEGA
nun mar de linguas